



Enric Rimbau

◆
KAZETARIA

Agindua argia da

Espainiako hedabideen zalapartaren gaine-
tik, Kataluniako hauteskunderen emaitza
argia da: independentismoak hauteskun-
deak irabazi ditu. 135 diputatuetik 72 dira
independentistak (62 JxS eta 10 CUP),
gehiengo independentista eztabaidazina,
areago kontuan izanda independentismoak
aurreko legealdian lortu zituela emaitzarik
onenak 24 diputaturekin (21 ERC eta 3
CUP). Orain arte Convergencia inoiz ez da
aurkeztu programa independentista zehatz
batekin, hori ere gogoratu behar da.

Kanpainan gaiari buruz izan den ika-
mika guztia kontuan hartuta, beste egi bat
ere komeni azpimarratzea: plebisziutaren
irakurketa nagusitu da eta, berriz ere,
alderdi eta hedabide espainiarren aldetik
desitxuratu egin da analisisa.

Botoen %47,8 lortu duen independen-
tismoak besteen aurrean ez duela irabazi
azpimarratzen dute, baina ez dute aipatzen
“ezetzaren” alderdiek (C’s, PSC-PSOE eta
PP) %39 lortu dutela. Ezta ere %11,5ek ez
duela botoa eman plebiszitu logika erabi-
liz, adibidez Catalunya Sí que es Pot-ek
(Podemos eta Iniciativa-Ezker Batuaren
arteko koalizioa) eta desagertua den Duran
Lleidaren UDck. Ezta ere botoen %1,1
legebiltzarretik kanpo diren beste indar
batzuek eraman dituztela.

Azpimarratzekoa da plebisziutaren dia-
lektikatik ihes egin nahi izan duten auke-
rak ezer gutxitan geratu direla, Unió adibi-
dez; edo beren aurreikuspenak oso txiki
geratu zaizkiela, adibidez Iniciativa eta
Podemosen koalizioari.

Plebiszitu logikak eman dio garaipena
C’s-i eta nagusitasuna espainiar nazionalis-
moan. 25 diputatuekin emaitza hirukoiztu
du ia eta jota utzi du PP, hauteskunde oro-
korren atean oraingo galtzaile handia.
PSC-PSOEek ere diputatuak galdu ditu,
baina ez du inkestek iragartzen zioten
tamainako zartakorik hartu.

Partehartze errekorra egon da eta “eze-
tzaren” bloke politiko eta mediatikoak
kanpaina apokaliptikoa egin du; horrexe-
gatik, emaitza hauekin independentismo-
ak bere proposamenari legitimitatea ema-
ten dion agindu argia jaso du. Hori bai,
jasotako emaitzek argi uzten dute prozesu
katalanak ezkerreara egiten duela eta bere
proposamen sozialak onartu beharko
ditu.

Itxaron beharko da atzerriko botoa
heldu arte, baina emaitza hauekin Mas
lehendakari izendatzea korapilatu egiten
da, JxSren 62 diputatuez gain CUParen bat
ere beharko baitu horretarako. Eta orain
arte CUPEk beti bota du atzera aukera
hori. Orain bi indar hauen arteko negozia-
zioak hasiko dira, une honetan gobernu
berria osatzeko dagoen arazorik handiena
gainditzeko helburuarekin.

Bi irtenbide besterik ez dira, edo lidergo
aldaketa dago edo CUPEk orain arteko
irizpidea aldatzen du. Independentisten
artean hor da eztabaida hori eta, hala ere,
agindua argia da eta prozesuak aurrera
jarraitzen du. Espainiako prentsak badu
pixka baterako.



Usurbilgo Udala